


# XIRI MIRI

Gianni Rodari idazlean  
inspiratutako Ipuin eta artista liburu  
egile gazteentzako nazioarteko  
lehiaketa deialdia

BLOOMING  
WRITERS



Un programa de:



## Sustatzaileak

Brif Braf Bruf Haur Literatura eta Ilustrazio Jaialdia egiten duen **Kontalariak elkartea**, Gianni Rodari idazlearen jaioterriko (Omegna) **Dragolago eta Mastronauta kultur elkarteekin** batzen da Blomming Artist- Xirimiri ipuin eta artista liburu nazioarteko lehiaketa aurrera eramateko.

Lehiaketa honetan Monakoko eta Bulgariako haurrek ere parte hartuko dute.

## Edukia

Lehiaketaren leloa **“H2O! Tanta bakoitza ederra da”** da.

Munduko Meteorologia Erakundearen (MME) txosten berri baten arabera, uraren zikloa ez da ohi bezain erregularra, klima-aldaketaren eta giza jardueren ondorioz. Lehorteeak eta muturreko euriek aurrekaririk gabeko heriotzak eragin dituzte.

Izotzaren urtzeak uholdeak izateko arriskua areagotzen du eta, itsas mailaren igoera eragiten duenez, milioika pertsonen epe luzerako segurtasuna mehatxatzen du. Euri jasa handiak daude eta, beste muturrean, lurrunketa gehiago, lur lehorrak eta lehorte-aldiak daude munduan.

Gianni Rodarik ipuin fantastiko bat idatzi zuen gai honi buruz:

### EURIAREN GIZONTXOA

“Ezagutzen dut euriaren gizontxoak. Hodeietan bizi den gizontxo arin bat da. Hodei batetik bestera salto egiten du, lurra hondoratu gabe. Leuna eta lurruntsua.

Hodeiek txorrota asko dituzte. Gizontxoak txorrotak irekitzen dituenean, hodeiek ura lurrera erortzen uzten dute. Gizontxoak txorrotak ixten dituenean, euria eteten da. Lan handia du euriaren gizontxoak, beti txorrotak ireki eta itxiz. Eta batzuetan nekatu egiten da. Leher eginda dagoenean, hodei baten gainean bota eta lokartu egiten da. Lo, lo, lo. Bitartean, txorrota guztiak irekita utzi dituenek, euria ari du etengabe. Zorte handia da besteak baino zaratatsuago den trumoi batek gizontxoak esnatzea. Gizontxoak jauzi batez altxatu eta oihera egiten du: – Gaixoa ni, zenbat denbora daramadan lo!. Behera begiratu eta herriak, mendiak eta zelaiak ikusten ditu, grisak eta tristeak erortzen jarraitzen duen urpean. Orduan, hodei batetik bestera jauzi egiten hasten da, txorrota guztiak presaka itxiz. Horrela, euriak atertu egiten du, haizeak hodeiei bultzatzen die, eta hodeiek, mugitzean, goxo-goxo kulunkatzen dute euriaren gizontxoak, eta berriro lokartzen da. Esnatzen denean, oihera egiten du: – Gaixoa ni, zenbat denbora daramadan lo!. Behera begiratu eta lurra lehor eta pitzatuta ikusten du, ur tantarik gabe. Orduan zeruan gora eta behera ibiltzen da txorrota guztiak irekitzeko. Beti istorio bera”

**Idazle gazteak gonbidatzen ditugu H2O! Uraren gaian inspiratutako ipuin bat sortzera.**

Epaimahaiak positiboki baloratuko ditu irudimena, berezotasuna eta hurren benetakotasun autorala.

## Parte Hartzeko Oinarriak

- Lehiaketa hiru kategoriatan banatzen da:
  - Lehen kategoria: 6 eta 10 urte bitartean.
  - Bigarren kategoria: 11 eta 14 urte bitartean.
  - Artista liburuak: 6 eta 14 urte bitartekoak.
- Ipuinak eta artista liburuak euskaraz zein gaztelaniaz idatz daitezke.
- Kategoria guztietan aurkez daitezke obrak banaka zein taldeka.
- Ipuinek gehienez 3 orri izan beharko dituzte.
- Artista liburuek ez dute inolako mugarik, erabili irudimena!

Artista-liburu bat zer den argi ez baduzu, hemen ikus dezakezu adibideren bat.  
[www.pinterest.es/veriu7/libro-de-art%C3%ADsta](http://www.pinterest.es/veriu7/libro-de-art%C3%ADsta)

## Aurkezteko Epea Eta Modua

Lanak 2024ko ekainaren 28ko 14:00ak baino lehen jaso daitezke Iruñeko edozein liburutegitan, bertan ipuinak gordetzeko kutxa bat aurkituko duzu. Hortik pasatzea ezinezkoa bazaizue, eskaneatu eta honako helbide elektronikora bidal ditzakezue:  
**kontalariaktx@gmail.com**

Gogoratu zuen izen abizenak, jaiotze data eta harremanetarako zenbaki bat jarri behar dituzuela.

## Epaimahaia

Kontalariak Elkarteko kide txikiek (11-14 urte bitarteko 10 haur) osatuko dute epaimahaia. Kategoria bakoitzean hiru ipuinen lehen aukeraketa egingo dute.

Iruña-Nafarroan aukeratutako lanak Italiara bidaliko dira, eta bertan, beste haur-epaimahai batek aukeratuko ditu lan irabazleak, Iruñetik, Bulgariatik eta Monakotik jasotakoen artean.

## Saria

2024ko irailaren 30ean jakinaraziko dira saritutako lanak, eta argitalpen batean sartuko dira. Lehenengo bi kategorietako ipuin irabazleak, argitaratzeaz gain, artista batek egindako bideo bizidun bihurtuko dira.

Artista liburuaren irabazleak 100 euroko balea jasoko du Iruñeko liburutegi batetan erabiltzeko.

Sariak banatzeko ekitaldi publikoa eta argitalpen honen aurkezpena urriaren amaieran izango dira, Omegna hirian (Italia), Gianni Rodari 2024 Haur Literaturako Jaialdiaren egunetan.

Proiektu hau posible izan da Europako Kultur Fundazioak bultzatutako Elkartasunaren Kultura Funtsaren finantza-laguntzari esker.

**Kontalariak Elkartea**  
**BRIF BRAF BRUF**

Haur Literatura eta Ilustrazio Jaialdia  
Txantrea –

2024ko abenduaren 24tik 2025eko urtarrilaren 4ra.  
[www.brifbrafbruf.eus](http://www.brifbrafbruf.eus)